

# ORO'KO AITZAK

*Altuna'tar Josu'k*

Goikoetxea'tar Nestor (Urdiola)'ri

Apaltasunak gizona goraldtu egiten dau, arrokerijak jetsi, ba'daukagu Nestor jauna zugandik zer ikasi. Ezkerrik asko zure erantzunak gaitik.


Mendigozalia biar danletz gertuta dagonian, bein etxetik urten ezketiño, naiago dauz mendi andi edo neke geyagckuak txiki ta errazak baño, batezbera gaztia ba-da, nai-ta mendi erraz oiek ikusgarriaguak izan. Guri-be, egije esateko beste orrenbeste jazo jakun gaztaruan. Azken aldiko urteotan baño, guztiz aldatu dira mendiko gure ibillerak. Orain, errazanak aurkituten doguz baño, aldanik ikuskitzun da ikasgarritzuenak diranak.

Aldi aietan, asotan izan gintzazan mendirako asmuaz, Murgia (Araba)'ko erri garbi ta osasungarrian, baño esan doguletz, nayago izaten genduban bertatik urten-da Gorbea'ziar Zeanuri'ra jetsitia, edo Murgia'tik mendirik-mendi Orduña'ra erdutia, erri aien inguruetakoko mendi polit eta errazatara jua baño.

Orain, zelan aldatu diran gauzak!, urte gitxin aldian birriten igon gera Murgia'tik Ego-aldera iru edo lau anei-neurkin edo kilometro'ra Zuya arana zortutzen daben amasei edo amazortzi erritxu'ren erdi-erdian auen jaboliak balitz dagozan Oro'ko aitzetan. Esan dogun-letz, aitz oiek igoteko erraz dagoz, bitxabala dago-lako aitzarteko Ego aldian dagon Andra-Mari txadona'rarte.

Oro'ko aitzan irudia, oru andi batekua-da, asi ia Zarkaldian-da Iparr-zorkalde-Ego ta barriz ia Zarkalde'ra doyaz bira-biraka aitz gallurrak: Zarkaldian zakonbat bakarrik dabela. Aitzik goiti edo altura andiena guazala ezkerretara Iparr'aldian dagon Atxabal 892 neurkin daukazana da, beren gañean burdiñezko gurutze andi-bat daukana. Aitz'ok at edo kanpo aldetik erpiñak dira, baño ez barru-aldetik, aumen ba'dira bedarti ta zelai-unek'be zugatzez jantzita, ta auetariko baten, aitzarte'aren Ego-aldian Oro'ko Andra-Mari'ren antziñako txadona; orain aldi andirik eztala Araba'ko aldundegiak barriztuta ederto apañdua dagona.

Txadon orren zarrayera ganian dagon areto zabaliam bilduten ei-ziran lenago Zuya'ko Anaidi, Udai da, noz edo noz Araba'ko Aldundegia'be. Orain be barriz asi ei-dira beste ainbeste egiten. Orregaitik, txadon aiek badu edestirik-be. Igarotako gizaldijan, txadon aietan ei-eguan jaupari edo apaiza bat egunaro jaupa edo meza emoteko, beren txadon jabile ta guzti, baño egun baten, erdu eiziran bertara irudi txarreko gizon batzuk, ikusizan letz, lapurra erailtzallioz ziran, aien arpegizatara ikusita apaiza sartuzan txadona'ra baño alperrik, gizon aiek-be sartu ziran-da, bertan erail leudan apaiza, ta garrazika asi zan ezketiño txadon-



Oro'ko aitzari begira mendizalia.

zandari edo ermitaño, igez egin ei-leban baña, gausrik onenak artuta. Ordutik on eidago txadona apaiz barik. Aldi auetan igande guztietan ospatutzen da jaupa, udan beintzat.

«Idatzi dogun jazokun ori, egizat zenbatu dauskube alderdi oietako jaun jakitun batek.

«Beste esakun bat-be bada Oro'ko Ama Neskutza'ren agerkundia dala-ta Barandiaran'dar J. M. jakitunak diñozkunez, arrijari entzunda.

«Ardijak jaboten ei-eguan artzai neskatilla bat, eta ikusi leban egun baten zezen bat ia egun guztian lurrian oñekaz atzamarka ta orroika eta, orretara beste iru eguneta geyago be bertan.

Eta azkenez zezenagana jua zan artzaya eta ikusi leben lurra atzarmartuaz zezenak elan Ama-Neskuta'ren irudia argitaldu leben.

Orduban Ama-Neskuta'k esan leutsen artzaya'ri: ementxe txadon bay jasotia nai dot.

Txadona eginzan, eta gaur dagona da.»

Amaitutzeko «Oro» izenatzaz zerbait esan nai doqu: Askok ustedabe «Oro» izera arderazkua dala «urrea» esan nai dabelakuan, baña, gu baño jakintu-naguak diñozkun-letz, izen ori euzkera garbia da, Barandiaran'dar Joxe-Mikel jaun jakintsuak diñozku; bere ustez «Oro» orue edo oru'tik (corral edo cerco) esan nai dan datorrela.

Eta P. Bera-López Mendizabal'en Euzkara-Gaztelera'ko iztegian diñozku erantzun askorenartian: «Oro, en toponimia significa altura, eminencia».

Aitzadi aiek ezagutzen daitubena, laster igarriko dau ziyo edo errazoya dau kela izentau doguzan jakintsu auek. Gure jakintza kazkarra-da baña orretan ga goz, eretxi oietakuak gera.